


Hitzak askatuko zaituzte

PAULO AGIRREBALTZATEGI



“... Eta Hitzak Haragi egin zen eta gure artean jarri zuen bizilekua” (Jn 1,14).

Hitza? Berba? Ah, zenbat eginkizun dituen gizon-emakumeen ahotatik ateratzen den “ahots” artikulatu horrek!

Egia agertzeko eta gezurra botatzeko... Inor goresteko nahiz iraintzeko... Laudorioak abesteko eta biraok jaurtitzeko... Lagunaren bihotza altxatzeko eta etsaia zapaltzeko... Goikoa zurikatze eta azpikoa azpiragotzeko... Guz-

tiotarako balio du hitzak. Aho biko ez-pata!

Eta, hala ere, Jainkoa Hitz bihurtu zen, eta Hitzak, Gizon.

José María Sánchez Carrión hizkuntzalariak badu liburu bat, Lengua y Pueblo izenekoa. Gauza asko salatzen ditu eta gehiago iradokitzen. X. kapituluari, S. Joanen Ebanjelioaren hasieraren iruzkina egitean, ebanjelariak berak bezain hitz misteriozkoak darabiltza: “Esa palabra --Jainko-Hitza-- es luz. Esa palabra es libertad. Desde que la luz se apaga y la libertad se pierde, hasta que vuelve a iluminar de nuevo, sólo hay oscuridad. Los hombres hablan, pero ya no pueden comprenderse. Han perdido la palabra”. Ideia honi eusten diot oraingoz: Libertatea da hitza.

Baina hitza ez da hitz soila; hitzen sistema da: Hizkuntza da! Eta hizkuntza aipatzean Euskal Herrian, libertatea ez baina zapalkuntza, autoreak aipatzen duen ilunbean, datorkigu burura. Euskal Herrian hizkuntzaz mintzatzea, hizkuntz gatazka, euskararen ordezkapen-prozesuaz, hori berreskuratzeko borroka eta ekintza herritarraz mintzatzea da.

Bere hizkuntza --bere hitza-- kendu dioten eta hizkuntzarekin batera bere eskukotasuna eta askatasuna kendu dioten Herri honetaz ari gara. Hizkuntzarekin batera bere kulturazko libertatearen eta bere burujabetasun ekonomiko eta politikoaren alde borrokatzen ari den Herri honetaz.

Hitza kendu zaion Herri hauxe da hemengo gogoetaren leku soziala; eta horiko klase herritarrek, beren mututasunaz jabetuak eta horren aurka borrokatzen direnak, horiek dira gogoeta honen oinarriko eragilea eta gogoetagilea.

Askapenaren teologiak hitzaren hizkuntzaren- izena hartzen du hemen.

Homo faber - Homo loquens

Unamonok idatzia da: "Gizakia hiztazengatik da gizaki"; W. von Humboldt haren beste hitzaz oihartzuna? "Gizakia hizkuntzazengatik da gizaki", zioen hizkuntzalari alemanak.

Antropologoak ados daude gizakia- ren bereizgarria eta ezaugarria dela fun- tsean hizkuntza. Areago, hizkuntzarekin batera sortu zela gizakia: Hizkuntza eta gizakuntza prozesu bat bakarria izan ziren funtsean. Jakina, hor hizkuntza esatean, giza mintzamina esan nahi da, Saussurek langage deitzen duena, eta ez halako hizkuntza konkretua (Saussu- re-ren langue delakoa). Malmberg hizkuntzalariak dioenez, "hizkuntzaren jatorriaren enigma orobat da gizakuntza- ren edo hominizazioaren enigma".

Zeinu-sistema gisa definitzen dute hizkuntzalariak hizkuntza. Kultura, ber- ritz, sistema sinboliko gisa antropolo- goek. Sinboloaren oinarrian dago zeinu- a. Bereziki kulturazko sistemaren fun- tsean dago hizkuntza.

Hizkuntzazko zeinuarekin eta kul- turazko sinboloarekin batera sortzen da giza libertatea ere: horiek sortzeko, sistematizatzeko eta komunikazioan erabiltzeko ahalmena da funtsean giza libertatea. Hizkuntza-kulturen bidez gaitzen du gizakiak funtsean izadia- rekiko menpekotasuna. Hizkera abstrak- tu honen azpian gauza bat baieztatu be- har dugu hemen, hizkuntzalari, filosofo eta antropologo askorekin batera: Hiz- kuntza-kulturen sormenean eta horiek ematen dioten norberaren barnea adie- razteko eta elkarrekin komunikazioa izateko ahalmenean datza funtsean giza libertatea.

Egiteko hauek ematen dizkiote hiz- kuntzalariak hizkuntzari: norberaren barruaren adierazpena, elkarrekin komu- nikatzea eta norberaren inguruko errea- litatea taxutzeko. Hizkuntzak, orokorki hartuta, hiru oinarritzako eginkizun ho- riek baldin baditu, hizkuntza bakoitzak, zeinu-sistema berezia denez, baditu gai- nera beste bi eginkizun nagusi: hiz- kuntz elkartearen berberatasuna edo identitatea oinarritzea eta gorpuztea, batetik, eta bestelako hizkuntz elkar- teetatik bereiztea, bestetik. Berriro ere zera esan behar dugu: kulturak egiten badu Herria, eta kulturazko sormena- ren oinarria baldin bada hizkuntza, hiz- kuntzan oinarritzen da Herriaren herri- tasuna.

Giza libertatearen mamia kulturaz- ko sormena dela esatean bi gauza adie- razten ditugu batera: naturaren kateeta- tik askatzea (askatasuna) dela, batetik; libertatea; baina, bestetik, zerbaiteta- rako dela giza libertatea: hau da, norbe- ra izateko (nortasuna). Hizkuntzaren eta kulturaren aldetik begiratz gero giza li- bertatea, giza libertatea, gizabanakoaren eta gizataldearen hizkuntzazko eta kul- turazko identitatean mamitzen da liber- tate hori; eta, beraz, horren ukapena da gizabanakoaren nahiz gizataldearen (he- rriaren) alienazioa edo arrozketaketa.

Alienazioa edo arrozketaketa aipatzeak hizkuntzaren (kulturaren) eta lanaren arteko erlazioaz mintzatzerak garrantzi- a: zuzenkiago esanda, hizkuntzazko-kultu- razko arrozketaren eta lanezko-ekono- miako arrozketaren arteko erlazioaz. Giza lanaren berezitasuna (makinen edo animalien lanetik bereizten due- na) zera da: mekanikoa ez izatea, krea- tzailea baizik. Errealitatea eraldatzean, lantzean, obra kulturazkoa egiten du gizakiak, horretan bere adierazkizunak, balioak eta arauak gauzatu. Horrela be- re sormenaren eraginez gizakiak egiten duen obrak izaera sinbolikoa du: hau da, adierazkizun-balio-arau kulturalen euskarri eta agergerri gertatzen dira, obra kulturalen eta giza sormenaren ar- teko sinbolozko loturaren bidez. Horre- gatik lanak, benetan gizatarra eta nor- beraren nortasunaren eta sormenaren adierzale eta gauzatzailerak izango bada,


kulturala izan behar du, eta ez mekani- koa. Orduan bakarrik izan daiteke lana eta horren fruitua giza nortasunaren gauzatzailerak eta ez langilearen arrotzailerak edo alienatzaileak.


Lana langilearen nortasunaren adie- razpen eta benetan haren liberazioarako izango bada, eta ez alienazioarako, haren kulturazko sormenean oinarritu behar du. Giza kultura dago giza lanaren oina- rrian; eta giza kulturaren oinarrian, giza hizkuntza. Homo faber eta Homo lo- quens bereiztezinak dira ikuspegi horre- tatik: hizkuntzak ematen dio kulturaz- ko sormenaren bidez bere zentzu osoa lanari.

Hizkuntza, ordea, ez da kultur sor- menaren oinarria bakarrik. Sormen ho- rren bidea da hizkuntza. Horixe nabar- mendu nahi du Noam Chomskyren gra- matika sortzailearen ikuspegiak, gizakia edo hiztuna hizkuntz sistema itxiren ba- ten mugetan lotu beharrean. Gramatika sortzaileak bidea irekitzen dio hiztunari mugagabeki bere sormen literarioa, kon- tzeptuala eta kulturala hedatzeko eta garatzeko. Horregatik hizkuntza ez da giza sormenezko libertatearen sinbolo eta oinarri bakarrik, eta bai horren bide- ratzailea eta eragilea.

Hizkuntza, boterearen euskarri

Chomskyren beraren pentsamendua azaltzean Mitsou Ronat-ek (Conversa-





ciones con Chomsky liburuan, 16 orrialdean) honela dio: “Es sabido que el poder económico que determina las clases sociales está penetrado profundamente por el poder del lenguaje: el dominio de la gramática normativa es considerado como uno de los criterios de la diferencia y de la discriminación social”.

Aipamen honek jartzen gaitu bide-tan, hizkuntza botere gisa eta edonolako boterearen euskarri gisa ulertzeko, hori boteredunen eskuetan ipintzean. Sánchez Carrión-ek gordinkiako dio oraindik: “El poder, cáncer de nuestra libertad, se reproduce en nuestro lenguaje” (52 or.).

Grina bat da funtsean boterea: Besteak eskupeatzeko eta menperatzeko grina. Hedakorra eta baterakorra da aldi berean: hau da, boteredunak bere barrutia zabaldu nahi du etengabe, alde batetik; eta bestetik, botere-mota guztiak (ekonomikoa, kulturazkoa, politikoa, etab.) bere eskuetara bildu nahi ditu. Bi joera horietatik datoz inperialismoa eta diktadura: inperialismoak munduzabalekoa izatera eta diktadurak absolutua izatera jotzen dute.

Demokrazia teorian boterearen grinaren kontrola eta boterearen beraren banaketa da: hortik dator boterearen iturburu herrian dagoela eta botere politikoen (legalaren, judizialaren eta exekutiboaren) bereizkuntza. Baina nahiz eta etimologiaz “demo-krazia” “herriaren agintea” izan, gure demokrazia hauek bitartekotzaren eta delegazioaren gainean oinarritzen dira. Demokrazia

formalak dira, demokraziaren “formak” itxurak, gordetzen dituelako. Baina boterea klase boteredunen eta gainartzaileen eskuetan uztea besterik ez da. Horien azpian eta menpean daude klase herritarrak, boterekerik gabeak.

Hauxe idazten ari naizen bitartean Mikel Dorronsoro irakaslearen artikulua bat etorri zait eskuartera; hona bertako lerrotxo batzu: “Gure askatasuna botereak ipinitako mugekin batera amaitzen da. Herriak boterea kontrolatu beharrean, botereak kontrolatzen du herriaren askatasuna” (Egin, 1986ko azaroak 23). Askatasunaren iturburu eta oinarria hizkuntzan dagoenez, boteredunen lehen egitekoa, hain zuzen ere, boteregabeen hizkuntzako kontrola lotzea da. Orduan hizkuntza bera bihurtzen da boteregairik behinena, goian, aipaturiko botere ekonomikoarekin eta horrekin batera joan ohi diren botere politikoa, kulturazkoa, tekniko eta bestelakoekin batera.

Horra askatasunaren eta libertatearen iturburu zena –hizkuntza– boterearen iturburu eta, beraz, askatasunaren kontrolaren oinarri bihurturik.

Literatura zabala dago boteredunek –eta bereziki botere politikoaren jabe direnek– hizkuntzako botereaz jabetzeko eta beren boterearen euskarritza hizkuntza manipulatzeke dituzten baliabideei buruz. Lehen aipaturiko Sánchez Carrión-en hitz hauek egoki adierazten dute: “Las minorías que controlan el poder –ya sea político, económico, cultural, científico o religioso– ejercen una continua distorsión sobre esa propiedad

común, e irrenunciable, que es el lenguaje, para su propio beneficio y a espaldas de los intereses de la mayoría. Este ‘apropiamiento lingüístico’ no es por sutil menos violento que otras formas más conocidas y mejor estudiadas de explotación”.

Literatura ugaria dago; baina kontrolerako mekenismo guzti horiek oraindik etengabe argitu beharra dago; eta herriak jabetuz joan behar du. Hauteskunde-kanpainan gaude hau idazten ari naizen bitartean; sekula baino nabarmengoa da hizkeraren manipulazioa. Baina euskaldunok ondo ohituta gaude urtean zehar ere, botere zentraletik eta horren euskarri guztietatik egiten duten hitzen, hizkeren eta hizkuntzen manipulazioaz. Guztiaren azpian dago, herriaren hiztegia, hizketa eta hizkuntza “lapurtuz” eta beretuz egiten dutela hori klase boteredunek, horrela herriaren eta klase boteregabeen arroketa edo alienazioa giza libertatearen eta nortasunaren oinarri-oinarrian, hizkuntzan,

Boteredunek manipulatzen dituzte hiztegi-tako eta herriaren ahotan dabil-tzan hitzak, horiek ematen dioten esanahiaz gain edo horren aurka, beren adiera ideologikoa eta sarritan legezkoa ezarritz hitzei. Horrela bakea, solidaritatea, demokrazia eta beste mila hitz desitxuratuta gelditzen dira boteredunen ahotan eta lumatan. Hori da, hain bestea: boteredunek daukatela hitzen erabileraren kontrola, komunikabideen eta bestelako tresna guztien bidez.

Areago, herri osoaren hizkuntza baliatzen dute boteredunek beren parte behinentzat eta horren euskarri nagusi-

tzat, boterearen hizkeraren eta hiskera herritarren artean bereizkuntza nabarmena ezarri. Goi-hizkeraren eta behe-hizkeraren arteko bereizkuntzak ez dauka inolako oinarri linguistikorik, soziologikoa eta ideologikoa baizik. Hala ere, hizkuntzalaritzak sarritan bidea eman izan du bereizkuntza horretarako, hizkuntzalaritza bera ere boteredunen eskuetatik dabilenean. Gramatika ren emailak halako klase "goikoek" eta boteredunek erabiltzen duten hizkera berezia eta **berezia** hizkuntzaren forma estandartzat hartu eta ezarri dutenean, ez dute egin hizkuntza boteredunen eskuetan jartzea besterik, beste hizkerak edo hizkuntzaren formak okertzat jo eta gaitzesten dituztenean.

Bestalde, jakina da, hizkuntza idatzia hobeto kontrola daitekeela, mintzatu baina. Hizkuntza idatziaren arauak ongi ikastea eta idaskeraz erraz baliatzea sarritan ez dago klase herritarren eskuetan eta bai ikasketa luzeak egiteko aukera izan dutenen klase boteredunetan. Hizkuntza idatzia boterearen tresna bikaina da. Horregatik diktadurak herriaren alfabetizazioaren aurka egon ohi dira sarritan; alderantziz, alfabetizazioaren bidea herriaren askatasunaren bidea urratzea da.

ALIENAZIOA ETA MINORIZAZIOA

Boteredunen aldetiko hizkuntzaren erabilera hobeto nabarmentzen da oraindik, estatu-botere bihurtu denean eta botere hori beste lurraldetara zabaldu nahi duenean. Horra inperialismoa!

Klase gainartzaile edo dominanteek, estatu batetan oinarriturik, beren boterea -politikoa, ekonomikoa, kulturazkoa- kanpora zabaldu nahi dutenean, hizkuntzak garrantzi berezia hartzen du. Oso liburu argigarria eta gogorra du idatzia horretaz Louis-Jean Calvet-ek, honelako tituluarekin: **Linguistique et colonialisme. Petit traité de glottophagie**, 1974ean argitaratua. Bertan agertzen ditu kolonialismoaren urratsak, metropolitiko hizkuntza ezartzeko eta herri kolonizatuaren hizkuntza ordezkatzeko prozesuan, hizkuntza azpiratua irensteraino ("glottophagie"), herri kolonizatuaren aldetik erresistentziatzeko edo jarkierazko mugimendua sortzen ez baladin bada.

Berriro ere Sánchez Carrión aipatuz, testu luze xamarra baina argigarria

dakart honera: "...un pueblo, al conquistar a otro, trata de imponerle junto con su dominio político su hegemonía lingüística. Antes de expandirse hacia fuera ha habido una conquista en vertical, y esta conquista significa la apropiación de la palabra por parte del Poder. Como afirma Knapper: "Who wants power needs language" (El que quiere poder, necesita la lengua). Apropiación que lleva correlativa la desposesión.



Euskaldunak badu mendetako esperientzia euskararen ordezkapen-prozesuarena, eta frantsesaren eta gaztelaniaren ezarpenarena. Historia horren gora-beherak eta horretarako erabilitako baliabideak eta mekanismoak hobeto ezagutzuz joan behar dugu. Era berean politika horretan Euskal Herriko klase boteredunek -ekonomikoek, politikoek eta kulturazkoek- eduki duten partaidetza eta erantzuletasun larria oso kontutan hartzekoa da eta salatzekoa.

Hizkuntza zapalduaren ordezkapen politikaren eta horretarako neurri le-

gekzkoen euskarritzat, lan ideologiko handi bat egon ohi da. Lan ideologiko alienatzaile hori, herri zapalduaren alienazio politiko eta ekonomikoarekin batera joan ohi da.

Prozesu hori hizkuntza gainartzailearen eta azpiratuaren arteko bereizkuntza nabarmenduz haste da: aurrena da prestigiozkoa eta baliozkoa, gizarte-ko mailatan gora igotzeko eta postu inportanteak lortzeko balio duena; bertako hizkuntza, berriz, gizarte-ko bazter maila eta lekuetarako gelditzen da. Hori praktikan egiaztatzeko, hizkuntzen erabilera da oinarri: alor ofizialetan (administrazio publikoan, komunikabide sozialetan eta irakaskuntzan) hizkuntza gainartzailea erabiltzen bait da.

Ordezkapen-prozesuaren ondorioz eta zurigarri "hizkuntza primitiboaren" eta "hizkuntza modernoaren", edota "lagunarteko hizkuntzaren" eta "kultur hizkuntzaren" arteko bereizkuntza nabarmendu ohi da. Jakina, klase gainartzaileen eta estatu dominatzailearen lan ideologiko horren aurrez aurre daude hizkuntzalari zientifikoek eritziak: Beste milaren artean L. Ninyoles-ek, bere *Estructura social y política lingüística*, 1975, 129. orrialdean dioena: "Todas las leguas están igualmente cualificadas para desempeñar las funciones de comunicación e integración social y pueden edecarse a las exigencias de la cultura moderna". Baina zientziak ez du balio izaten halakoa; eta gainera sarritan botereak bere aldeko sasi-jakin-tsuak aurkitu izaten ditu.

Hizkuntza gainartzailea azpiratu gutxiturik gelditzen da, hizkuntza ordezkapenaren prozesu horren barruan. Herriak bere nortasuneko hizkuntza galtzean edo gutxitua ikustean, hizkuntzako alienazioa bertan da. Horretarako erabiltzen ditu botereak bere baliabide guztiak. Norberaren hizkuntzaren gutxitze-prozesuarekin batera doa, hain zuzen, alienazio hori. Horrela hizkuntzako dominazioa edo menperakuntza, hizkuntzako minorizazioa edo gitxitzea eta hizkuntzako alienazioa edo arrozketak, bide bakarraren ikuspuntu ezberdinak besterik ez dira.

Jakina, hizkuntza nagusituaren eta hizkuntza gutxituaren arteko kontradikzioa historikoaren ondorio neutralizatutak zurikatu nahi izaten dute boteredunek, egoera objetibotzat aurkeztuz: hau da, gehiengoaren eta gutxiengoaren hizkuntzen arteko dinamika "demokratikoaren" barnean ipini nahiz hizkuntzazko gatazka. Oso ezaguna dugu gure artean hizkuntza gutxituaren -euskararen minorizatuaren- arazoa, gutxiengo baten -biztanle guztietan / 25 edo 30 euskaldunon- arazo bihurtze hori.

Arazoa ez da, ordea, zenbatek ezagutzen eta erabilintzen duen halako hizkuntza --gure euskara ala erdara--; arazoa beste hau da: Gizarte bat edo Herri bat --gurean Euskal Herria-- egoera diglosiakoan bizi dela, bere hizkuntza nazionala azpiratu eta gutxitu diotelako, eradarakin ordezkatur. Minorizazioaren arazoa da eta ez minoriaena. Eta hori ez da konpotzen demokrazia formalaren formalismoekin. Besteren artean, demokrazia horretan Herri hau menperatu eta berorren hizkuntza-kulturak minorizatu dituzten klase gainartzaileak irauten dutelako beren botarearekin azken batez.

Hizkuntzako eta alienaziozko egoeratik Herri bat irtengo bada, liberazioa da bidea; eta bide horren abiaburua eta norakoa bere hizkuntzako eta kulturazko berreskurapenean du herriak. Horretarako hauxe dela uste du Calvet-ek (81. or.) abiabururik nagusia: Herriaren jarkiera: "Mais la disparition d'une langue (la glottophagie réussie) ou son contraire dépendent de nombreux facteurs non linguistiques, en particulier des possibilités de résistance du peuple qui parle cette langue". Eta beheraxeago kontzientzia nazionala ipintzen du jarkiera horren eragiliérrik behinentzat: "... le plus sûr ressort de cette résistance est constitué par la conscience nationale du peuple opprimé qui le fera éventuellement se dresser contre l'opresseur".

Jakina, hizkuntzako berreskurapena lortzeko kulturazko askapenaren barruan, kontzientziaz gain, borondatea bizkortu behar da, bidea argitu behar herri-ndarrak koordinatu, antolatu eta beteratu behar dira.

Erljiozko botera eta hizkuntza

Klase boteredunak herriaren hizkuntzaz jabetu egiten badira beren interetan, eta estatu "inperialistek" herriei beren hizkuntza kentzen badiote beraien hizkuntz arrotza ezartzeko, galdera berehala dator: zer eginkizun du erlijioak --Elizak-- boteredunen joko horretan eta zein erantzukizun hizkuntzako zapalkuntzan eta hizkuntzen arteko gatazketan?

Hizkuntzaren eta erlijioaren arteko lotura ezaguna da Herri guztietan; eta horien hizkuntzako gorabeheretan zeriak berezia izan du sarritan erlijioak. Erljio gehienek gizon-emakumeen askapena dute beren muinik nagusia: askapen eskatologikoa, mundu honetatik askatzea, mundu honen barruan askatasunaren helburua eta egiturak lortzea. Eta historian zehar Herrien, klase herriaren eta gutxiengo sozialen askapen-bo-

rokan beren eragina izan dute batzutan erlijioetako batzuk; edota horien barruan askapen-ndarrak ere ihardun izan dira. Besteren artean, hizkuntzen historian eta horien normalkuntzan erlijiozko erakundeek eduki duten funtsezko eragina daiteke ahanztu; bestalde, hizkuntza gutxituen berreskurapen eta askapenezko borrokatan ere erlijiozko indarrek garrantziko eragina eta eginkizuna bete izan dute batzutan, lehen aipaturiko Calvet-en liburuak nabarmentzen duenez.

Baina erlijioaren eta hizkuntzaren arteko harremanak alderantzizko alderdia du: hau da, erlijioa bera botere-mota eta bestelako botereen euskarri bihurtzen denean, giza hizkuntza erlijiozko boteredunen tresna bihurtzen da, beren botereari eusteko erabiltzen dutena. Apaizak eta hierarkia izan ohi dira erlijiozko boteredunak gehienetan.

Erljiozko gidariak (apaizak, aztiak, magoak, sorgin edo belagileak, maisu eta doktoreak) benetan erlijiozko boteredunen klase gainartzailea gertatzen dira. Botere hori gorpuztean eta horri eustean garrantzi berezia eduki ohi du hizkuntzak, bereziki erritoan eta kredoan horrek hartzen duen izaera sakratuaren bidez. Edozein erlijioaren bi zutabe nagusi dira errittoa eta fedeko kredoak: biak dira sakratuak. Bietan halako hitz sakra-

tu eta finkatuen erabilerak funtsezko garrantzia du. Hitz horiek formulatu, gorde, erabili, adierazi, "kleroak" bakarrik egin ditzake. Horien bidez izadiaren, gizartearen eta fedekunen kontrola bere eskuetan dauka kleroak, erlijiozko boteredunen klase bihurtzen denean. Zalantzarik ez dago horretarako joera handia izan ohi dutela erlijio guztietako kargudunek.

Errittoa erritualismo dogmatikoak eta kredoak formulismo dogmatikoak irensten dituztenean, berriz, giza hitz libre eta liberatzaileak kateaturik gelditzen dira, eta gizon-emakumeen libertatearen iturburua den hitza, menperatzeko tresna bihurtzen da orduan, Jainkoaren edo jainkoen izenean. Hitz tabuen fenomenoak esandakoaren azterketa zabaltzera eramango gintuzke.

Hizkuntzaren erabilera erritualista eta dogmatista horrek bere oinarria eta aitzakia eduki ohi du sarritan "hizkuntza sakratuaren" ideologian. Horretarako hizkuntzaren mitologia osoa lantzen da, halako hizkuntza, bereziki erlijioaren fundatzaileak arabilitakoa, Jainkoak sortutzat, mintzatutzat eta errebelatutzak ematen denean. Horrela, erlijioaren liburu santuatako hizkuntzak jainkozko kategoria hartzen du, beste guztien, profanoen, artean.



Liburu santuetako hizkuntza erlijiozikunetako hizkuntza gisa iraunkortzen da sarritan, eta erlijio-erakundearen hizkuntza ofizial bihurtzen da: aldaezina eta ikutuezina, jainkozkoa eta sakratua delako.

Horretarako historiaren gorabeheretatik kanpo gelditzen dela uste izaten hizkuntza sakratua. Historiak ezartzen dituen hizkuntz aldaketak ez dagozkio nonbait hizkuntza sakratuari. Eta prozesu historiko horien eraginez, Herrietan hizkera-forma ezberdinak, hizkuntza berriak sortzerainokoak, gertatzen diren bitartean, hizkuntza sakratua bere horretan gorde nahi izaten dute erlijiozko eskumena dutenek. Eta herriarentzat eta eguneroko gizarte-bizieran hizkuntza hila gertatu bada ere, erlijioaren alorreko liburu santuetan, ofizialtasunean eta erritoetan bizi izaten da hizkuntza sakratua. Ezagunak dira Veda-tako sanskrito klasikoaren, Koran-eko arabiera klasikoaren eta nolabait Mendebaldeko Eliza Katolikoaren oraintxe arteko eta neurri batez orain bertako latinaren kasuak.

Hortik sortzen da hizkuntza sakratuaren eta herri-hizkuntzen arteko leizea. Erlijiozko klase gainartzaileak bere hizkuntzazko botereari eusteko, goimailako hizkuntzaren ideologia landu eta zabaldu ohi du: hizkuntza sakratua da, hain zuzen, goimailako hizkuntza, herri-hizkuntzak behemilakoak eta "bulgarak" diren bitartean. Bereizkuntza eta leize horietaz baliatzen dira, beren botere sakratua gordetzeko eta herri xehean gertatzen diren gorabehera historikoetatik ateratzeko.

Gertatzen da, gainera, kleroaren goimailako hizkuntza sakratua eta gizarteko beste klase gainartzaileen kultur hizkuntza bat bera izaten dela. Horrela hizkuntzaren bitartez ereerlijiozko klase gainartzailea gizarteko klase boteredunekin elkarturik geratzen da; areago, horien boterearen euskarri gertatzen da kleroa, botere sozial osoaren edo horren parte nagusi baten -kulturazkoaren- jabe bakarra ez denean. Izan ere, hizkuntza sakratua kleroak bakarrik ezgutzen dutenez eta "goimailako kulturaren" transmisioa eta sorkuntza hizkuntza horri lotuta dagoenez, bera gertatzen da kultura gainartzailearen jabe.

Beste alderdi garrantziko bat ikusi behar dugu hemen, hizkuntza gainartzaileen eta hizkuntza gutxitu edo azpiratuen gatazkari dagokiona. Erlijio misiolariak eta munduzabalera hedatzera jotzen dutenak, sarritan gertatu izan dira Herrien hizkuntzen ordezkatzaila, beren hizkuntza sakratua ezarriz edo estatu inperialisten nahiz kolonialisten akulturazio-lana eta hizkuntz ordezkapenaren eta sustatuz. Hitz batez, hiztoriak hamaika kasu ekarri ahal digu, erlijio-erakundeek beren erlijiozko mezuarekin batera botere estatal zentralista, inperialista edo kolonialistaren "mezu" kulturazkoa eta hizkuntzazkoa zabaldu eta ezarri duteneko. Berrero ere boterearen tresna bihurtzen da hemen hizkuntza, erlijioa bera tarteko delarik eta botere politiko-ekonomikoen eta erlijiozkoaren aliantzaren bitartez.

Hala ere, eta guzti horri kontrajarriz badira historian zehar erlijio-erakundeak herri-hizkuntzen normalkuntza bi-

deratu eta gidatu dutenak, eta horien barruan izan dira indarrak eta mugimenduak, hizkuntza gutxitu edo minorizatuen aldeko erresistentzia eratzeko oso baliagarriak eta inoiz erabakiorrak.

Hizkuntza sakratuaren status-a bera ez da beti goi-hizkuntzarena izan, minorizatuarena baizik: hala nola, Algeria kolonizatuan erabiera, kultura modernoko hizkuntza frantsesa zen bitartean. Israel estatua sortzeko oinarrietako bat, berriz, hebraiera izan da, Israel Herriaren hizkuntza sakratua. Ezin uka izaera sakratu horrek garrantzi handia eduki duela estatu modernoa eraikitzean. Hala ere, hizkuntza horixe ez al da gertatu israeldar integristen eskuetan, palestinarren eta inguruko beste Herrien zapalkuntzarako abiaburu ideologiko? Algeriako dagokionez, berriz, bere izaera sakratu eta erlijiozkoagatik bete zuen neurri handi batez bere eginkizun handia kolonialismoaren aurkako borrokan. Calvet-ek, horretaz ari delarik, "le maquis" (sastrakadia) deitzen du hizkuntza, Herriaren askapen-borrokan hizkuntza minorizatuak babesleku gisa eta borrokarako abiapuntu gisa balio izaten duelako. Agian erantsi genezake, borroka-leku edo borroka-zelai nagusi ere badela hizkuntza gutxitua Herri zapalduen askapeneko bidean.

Itxi dezagun parte hau, nabarmenduz izenean hizkuntzari buruz jokatu izan diren joko ezberdinak eta kontradiktorioak: zapalkuntzarako ala askapenerakoak, funtsean. Kontrako joko horien plaza adierazgarria Euskal Herri bera izan dugu.



Hizkabetuaren teologia

Bere hitza, bere hizkuntza kendu zaiona da hizkabetua. Hitza eta gogamendua erabat loturik baldin badoaz --grezierazko logos terminoak hitza eta gogapena, biak adierazten ditu--, nolatan egin dezake teologia benetakoa bere hitza, bere hizkuntza, kendu zaionak?.


Ba, gure gogoeta horietan honeraino iritsi ondoren, hizkabetu horren teologiaz mintzatu behar dugu. Azken batez, hizkabetuak bere hitza berreskuratzekeo bidean, bere hitzezko eta hizkuntzazko libertatea en bidean egiten duen askapen edo liberazio-teologia da. Hizkabea, berriz, gizabanakoa da, bere hitza lapurtu diotena; eta herria da, bere hizkuntzaz "gabetu" dutena.

Hitzaren teologiak badu bere historia luzea Elizaren historian. Ezin zitekeen bestela izan, Teologia bere Jainkoaren errebelazioan oinarritzen bada, eta Krito bera Jainkoaren Hitza, haragitu, baldin bada, Ebanjelioak agertzen digunez. Hitzaren teologiak Jainkoaren Hitzari buruz egin du bereziki gogoeta. Jainkoaren Hitz kreatzailea (Genesian); Jainkoaren Hitz errebelatzailea (Profetak); Jainkoaren Hitza, betierekoa eta gizon egina (Jesukristo); Jainkoaren Hitza, apostoluen eta ebanjelizatzaileen ahotatik aldarrikatua; Jainkoaren Hitza, Biblia osoan eta Ebanjelioan Idazteun bihurtua; Jainkoaren Hitz gertaberriua sakramentuan... Guzti hori izan da Hitzaren teologiaren haria.

Teologiaren eztabaidagai nagusietako bat izan da mende luzeetan giza hitzaren gaitasuna, Jainkoaren Hitza adierazi ahal izateko, batetik; eta bestetik, giza hitz historikoaren eta Jainkoaren Hitz trszendentearen arteko harramena... Eta hori profetengan, liburu santuetan, apostolu eta predikalariengan, sakramentuan eta eliz irakasleengan.

Dena dela, badut susmoa giza hitzaren (hizkuntzaren) balioa batez ere Jainkoaren hitzaren zeinu eta adierazgarri eta euskari izatearen aldetik ikusi izan duela teologiak. Horrela Hitzaren teologia osoak kutsu abstraktua izan du, gizakiaren hitza eta hizkuntza beren izaera eta gorabehera historiko konkretuan ez hartzean. Batez ere horren agergarri da hizkuntza ezberdinei buruzko gogoetak teologian eduki duen bazterreko edo azaleko lekua. Dena dela, guzti horrek azterketa sakonagoa eta zorrotzagoa merezi duela uste dut.

Gure asmoa ez da noski jainkozko Hitzaren teologiaren ordez giza hitzaren teologia ipintzea. Gizon-emakumeen hitzaren teologiako gogoetaren oina-



riari dago Jainkoaren Hitza. Baina Jainkoaren agerkundezko Hitz adierazlerik ez dago; gizakiaren fedezko hitzean adierazita ez baldin bada. Baina nola emango du fedezko erantzun adierazgarririk hizkabetuak? Zernolako fedezko erantzun pertsonalik eman dezake, bere hitza, bere hizkuntza lapurtu diotenak? Zein zentzu du Jainkoaren errebelazioak hitzezko eta hizkuntzazko alienazioan bizi den gizaki konkretuarentzat eta Herri konkretuarentzat? Hitzezko eta hizkuntzazko boterea dutenen teologiak --fedezko gogoetak-- zein zentzu du beren hitz eta hizkuntzaren jabe ez direnen herritarrentzat?.

Galdera horietan ez da noski ipintzen hitzaren edo hizkuntzaren teologia soilki; teologia osoari buruzko galdera dago ipinita, errebelazioari eta fedeari buruzko arazoa bait dago funtsean: teologia osoaren oinarria. Hala ere, arazoa ez da hemen teologia fundamentalararen puntu nagusiren bat argitzearena bakarrik. Hemengo eginkizuna beste hau da batez ere: beren hitzezko, mintzairazko libertatearen bila eta horren aldeko borrokan diharduten gizon-emakumeek eta Herriak bizi duten fedetik landu behar duten teologia osoa, beren egoera eta esperientzia horren barruan. Zein zentzu teologiko du norberaren hitzezko eta hizkuntzazko adierazpenaren aldeko borrokoak?.

Hitzaren eta hizkeraren manipulazioa eta hizkuntzaren ordezkapenaren arazo osoa dago hemen funtsean; eta bereziki dago manipulazio eta ordezkapen horien menpe bizi direnen eta horien aurka borrokatzen direnen arazo "teologikoa". Nekez azalduko dugu hemen

"hizkabetuaren teologia" osorik, ez eta horren ardatz nagusiak ere. Ezinezkoa zaigu. Baina horretarako iradokizun batzu egin eta lerro batzu marraztu nahi ditugu, labur-labur.

Kreaziokoan, Genesiko lehen 2 kapitulutan, badaude bi testu oso argigarriak gure gogoetaren abiapuntu gisa. Lehenengoan Jainkoa bera da hitzaren jabe: horren bidez sortzen ditu sorkari guztiak, ezerezen anabasetik atereaz; eta berak ipintzen die izena: Eguna, gaua, zerua, lurra, itsasoa. Gauzei izena ipintzea da mintzamenaren funtsa. Bigarren kapituluan (18-20), berriz, gizakiari berari ematen dio Jainkoak gauza guzti-i izena ipintzeko ahalmena: "Eta Jainko Jaunak landako abere eta zeruko hegazti guztiak egin zituen lurretik, eta gizonari ekarri zzikion, zer izen ematen zien ikusteko; eta bizidun orok, gizonak jarritako izena du bere izen. Eta gizonak izena ezarri zien abere guzti-i eta zeruko hegasti guzti-i, eta basa-pizti guzti-i; baina ez zen aurkitzen gizonari zegokion lagunik..." Ondoren, emakumearen kreazioa kontatzen du Genesiak. Gizakiaren libertatea izaki "mutua" gainditzean eta izakiei izena emanez izadia bere gisara taxutzean datza; baina izadiaren taxutzaile izateaz gain, giza hizkuntzak elkarrekiko komunikazioaren alderdi nagusia du. Genesiko Jainkoa ez da gauzak ezerezetik sortzen dituen hitz indartsuarena bakarrik; gizakiagan hitza pizten eta euskarritzen du Jainkoak.

Areago, Jainkoak berak indartzen du gizakiaren mintzamena, Jainkoaren beraren izena nolabait adierazteko ahalmen gertatzen denean. Jainkoak Moiseri egiten dion bere "izenaren"

agerkundera besterik ez da, jaïnkotzko misterioa nolabait adierazteko gaitasuna giza hizkuntzari ematea baino.

Genesiko X. kapituluaren arauera, Herri banaketa eta horien ugaritzea eta berorien hizkuntza ezberdinen eraketa, Jainkoaren bedeinkapenaren eraginez gertatzen da. Jainkoaren asmoaren arauerakoa da, beraz, munduko hizkuntzen ugaritasuna. Ideia hau berretsirik geratzen da Deuteronomioko 32,8 txatlean eta geroago Apostuluaren Egintzetan. Horren arauera, ez dago hizkuntza sakraturik; edozein hizkuntza Jainkoaren asmoen arauerakoa da. Hizkuntza desakralduta gelditzen da.

Egon da tradizio bat hiztorian zehar Genesiako X. eta XI. kapituluaren artean kontradikzioa ikusi duena, eta Babelgo dorrearen mitoa azaltzean, hizkuntzen ugaritasuna Jainkoaren madarikazioaren ondorio gisa ulertu duena. Baina gaur egun hainbat exegetak osagarritzat jotzen ditu bi testuak. Izan era, Babelgo dorrea inperioaren sinboloa da., Herri guztien gain boterea zabaldu nahi duen eta hizkuntza guztiak ordezkatu eta barra ezarri nahi duen inperioarena. Asmo inperialista horiek desegitean, Jainkoa Herri eta Hizkuntza zapaldu eta gutxituen alde ateratzen da, besteen gain hizkuntza bakarra nagusitu erazi nahi duen inperioaren aurka.

Giza mintzamenaren gaitasun eta funtzio teologikoa hitz profetikoa nabarmentzen da bereziki. Bertan gizakia- ren hizkuntza Jainkoaren agerkundearen, Jainkoaren Hitzaren gorputz bihurtzen bait da. Hitz profetikoa Jainkoaren hitza ez da gizakiarenaren menperatzaile eta irense bihurtzen; alderantziz, horren adierazpen -eta komunikazio- gaitasuna egikariturik gelditezen da, gizakiaren hitza nolabait jaïnkotzko hitz bihurtzean.

Giza hitzaren dinamismo hori, ordea, Jesukristogan burutzen da, betiereko jaïnkotzko Hitza gizon egitean, horrela giza hitzarekin batasun erabatekoa eginez. San Agustinez, bere hitz-joko sakonak egiteko trebetasunaz, "hitz bihurtzea" deitzen du gizakundeko "hargi bihurtzea". Jaïnkotzko Hitzaren agerkunderik bikainera eta giza hitzaren fedezko erantzunik eta adierazpenik burutuena batzen dira Kristogan; S. Paulok dioenez, Kristo bait da Jaïnkoi eman- dako baiezko --amen-- bikainena.

Jesukristo ez da, ordea, gizon abstraktua, eta bai halako Herri konkretuan jaïoa eta halako Kultura konkretuan kultureztaturikoa. Hizkuntz jakin bat erabili zuen bere predikazioan, erromatarren hizkuntza inperialaren menpe zegoen hizkuntza hartantxe, hain zuzen.

Mutuei mintzamina ematea Jesukristok betetzen duen egintza mesi- ani-koetakoa da. Markoen Ebanjelioan (7,33-37), Jesusek gormutua sendatu ondoren, horren gorespenak kantatzen zituen sendatuak, "gorrei entzumena eta mutuei mintzamina ematen dielako". Mesiaren etorreraren zantzuak bat da, zentzu berezi-berezia hartzen duena bestelako sendaketen artean.

Hizkuntzen teologian maiz aipatzen dena Mendekosteko gertakaria da, non Babelgo dorrean mitoa kontrako gertatzen bait da: hau da, herri eta hizkuntza ezberdinetako jendeek elkar ulertzen dutela, eta bereziki S. Pedroren predikua bakoitzak bere hizkuntzan egingo balu bezala ulertzen diola. Genesiko kontakizunarekin duen loturaz Izpiritu santuaren eraginez hizkuntzako liberazioa gertatzen da eta hizkuntza sakratuaren erabateko gainditzea mendekostean. Ez dago aurrerantzean jaïnkotzko jatorriko hizkuntzarik; denak dira jaïnkotzko mezua adierazteko gauza. Hizkuntza sakratuaboterearen interes ideologikoei lotuta dago, eta gizakiak eta herriak mututasunean ezartzeko erabili ohi da. Jesukristo Jaïnkoren behin-betiko Hitza eta gizadiaren hitz bikainena gertatu denetik, hizkuntza guztiak berdina dira, jaïnkotzko misterioaren "gorputza" izateko eta Jaïnkoren gorespenak kantatzeko. Hizkuntza guztiak dira gurtzurako eta liturgiako egokiak, gizon-emakumeen eta Herrien agerpide, adierazpide eta komunikabide diren neurrian.

Ikuspuntu horretatik, hizkuntza ezberdinen fenomeno kristau-elkartea eraikitze bidea gertatzen da. Lehen aipaturiko Sánchez Carrión-ek, honela laburbiltzen du Bibliako hizkuntzako liberazioaren mezua: Así, pues, hay en la lectura que he intentado hacer del lenguaje en la Biblia, a mi modo de ver, un mensaje bastante profundo de liberación. En el episodio de Babel se nos avisa del peligro de esa falsa lengua universal: la lengua como instrumento de opresión, la lengua de los hombres del poder. Por el contrario en el Nuevo Testamento se nos propone 'la lengua de la asamblea' como lengua al servicio del hombre. (46. or.).

Mendekostetik aurrera Izpiritu Santua gertatzen da hitz librearen eta hizkuntzako libertatearen eragilea. Ez inolako hizkuntza sakratuaren bat ezartzeak, ez magiazko hitzak, ez hitz tabuek ezin dezakete gizakia lotuta eta menperatuta eduki aurrerantz edonolako inperioaren edo botereren ahaleginak, menpeko jendeen edo Herrien hitza eta hizkuntza azpiratzeko, gutxitzeko eta ordezkatzeko, gaitzetsita gelditzen dira. Era berean formulismo erritualak edo dogmatikoak eta boteredunen —erlijiozkoen, ekonomiko- en, politikoen nahiz kulturazkoen— aldetik herriaren hitz librea bertzea eta manipulatzea Izpirituak indarberrituriko hizkuntzako libertatearen aurka doaz.

PAULO AGIRREBALTZATEGI

